

## Gaurtik, II. Mendi Astea

Goikoetxearen  
argazkiak, gaur ▶ 6



# Leitzarrek ikurrina jarri eta berriro kendu dute

**BATZARRA** ▶ Hainbat herritarrek  
ikurrina jarri zuten ostiralean,  
udalbatzarra egiten ari zela

**AGINDUA** ▶ Alkatearen aginduz  
berriro kendu egin zuten,  
ziztu eta protesten artean ▶ 7



## Joseba Otaegi gaztea, Urrezko Aizkoran irabazle

**ZIZURKIL** ▶ Joseba Otaegi zizurkildarra —ezkerrean— eta Arkaitz Iriarte Igertza urrestildarra izan dira irabazle Urrezko Aizkora lehiaketan, gazteen mailan Rodriguez-Zubiagaren aurka Azpeitiko kiroldegian larunbat gauean finala irabazi ondoren. Argazkian bi irabazleak azken enborra moztu ondoren. Gazteen

mailan Urrezko Aizkora bikoteka jokatzen zen lehen aldia izan da. Zizurkildarra «lortutakoarekin oso gustura» agertu da eta txapela ondoan izan ditueni eskaini die txapela, batez ere Nemesio Agirreri. Orain Urrezko Aizkora banaka jokatuko du eta igandean Bidegoianen lehiatuko da Amianoren aurka. IMANOL OTEGI/BERRA ▶ 4

**TOLOSA** ▶

## Nikaragua laguntzeko Elkartasun Azoka

Amarozko auzo  
elkarteak antolatu  
du; gaur, hitzaldia ▶ 2

**BIDEGOIAN-TOLOSA** ▶



NOELIA LATABURU

## II. Berria Txapelketan kanporatu dituzte

Aurrera Saiazek  
Umore Onaren aurka  
galdu du ▶ 5

**TOLOSA** ▶

## Futbol taldeak berdinketa lortu du

Arrasateko zelaiaren  
egoera txarrak ez  
zuen jokatzen uzten ▶ 3

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Autodeterminazioa orain

Azken hauteskundeetan, beti eman dut botoa EHNarekin, euskal herritar bezala, eta jende asko EHNarekin eman du botoa ere, bai Izaskungo eskoletako mahai ezberdinetan —bertan dagokit niri botu ematea—, bai Euskal Herrian.

Hori litzateke normalena, gu euskal herritarrek garelako, ez espainolak. Baina, Europako ituneko erreferendumean, mahaburu espainiar zale batek ez zidan euskal herritar bezala

botorik ematen utzi. Adierazi nion: «Javier, espainiar izatera zuk behartzen nauzu, ez legeak; zure esku dago». Ez zidan hitzik esan ere; hitzik gabe erantzuna emanda zegoen: hemen Espainiak agintzen du, zu menpekota zara eta zuk botu emateko eskubiderik ez duzu euskal herritarra zarelako, espainiarra zarelako baizik. Gogoeta honekin atera nintzen: Euskal Herriak ezinbestekoa du independentzia.

Euskal Herria Europako historia aurretik Pirinioetako bi aldetan dagoen nazioa gara. Europako herri indigena gara,

Erdi Aroan Nafarroako estatu burujabea izan duguna gara, XXI. mendera bizirik heldu eta iraun nahi duen hizkuntz komunitate mehatxatua gara; baina Euskal Herria ez da existitzen PPrentzat eta PSOerentzat, ezta EAJko guztientzat ere. Horien helburua da euskal herritarrok eroso bizitzea Espainian, espainiarrek izanda, noski.

Identitate bateragarri eta ez gatazkatsuetan oinarritutako Espainiaren ereduaren saltzen digute hitzez; baina egitez, euskal herritarrok eskubiderik ez dugu, Espainiak ukatzen dizki-

gulako: Espainiak gatazka inposatzen dio Euskal Herriari. Herritarren eta herrien arteko berdintasuna nortasunaren errespetuan eta determinazio librea oinarritzen da, edo inposizio imperialista da.

Niretzat integrazio onena herritar eta herri bakoitzaren burujabetasuna errespetatu ondoren ematen dena da. Euskal nortasuna, euskal herritarren nortasuna, Euskal Herriaren independentzia ez da pribilegio bat, geure eskubidea baizik. Ez gara frantziarrak ez espainiarrak, euskaldunak baizik.

INAXIO AGIRRE ARREGI (AUB) ▶ TOLOSA

XAKE ▶

## Tolosa-Ibarrakoen 4-0 irabazi dute Gipuzkoako Ligan

Ibarra-Tolosa xake taldeak 4-0 irabazi zuen asteburuan Andoingo Agustin de Leiza taldearen aurka, Gipuzkoako taldekako Ligan. R. Etxeberriak, X. Mujikak, M.M. Barojak eta J. Barojak lortu zituzten puntuak. Tolosa-Ibarrakoen zazpi txanda jokatu dituzte jada Gipuzkoako Ligan, eta sailkapeneko goiko postuetan jarraitzen dute. Datorren astean Hernaniren aurka jokatuko dute.

HEZKUNTZA ▶

## Hirukiden, drogen prebentzioa hizpide, gaur

Hirukide ikastetxeko Guraso Elkarteak drogen prebentzioaren inguruko hitzaldia antolatu du gaur. AGIPADeko —Drogomenpekotasuna prebentzeko erakundea— kideak izango dira hizlari, eta seme-alabak gai honen aurrean nola hazi azalduko die gurasoei. 12 urte azpiko ikasleen gurasoei dago zuzenduta saioa. 18:30ean hasiko da, Hirukide Jesuitinatan. Hilaren 15ean, bestalde, beste hitzaldi bat antolatu dute, *Kontsumoko lehen arazoak izenburupean*, 12 urteaz gorako ikasleen gurasoentzat; saio hori Hirukide Eskolapiotetan izango da.

POLITIKA ▶

## Bihar, Aralar alderdiaren hitzaldia

*Ekzerabertzalea zibil eta zabal* kanpainaren barruan, Aralarrek hitzaldia antolatu du, bihar, «etorkizuneko ezker abertzaleari buruzko gogoeta egiteko»: Garai berriak bizi ditugu, eta bide berrien aldeko apustu sendoa eskatzen dute. Bide politiko soiletatik ariko den ezker abertzale berritua eta birpentsatuta, alegia. Egoera berrietara egokitzeko gaitasuna izango duena. Behetik gara demokratikoki antolatuta eta abangoardiaren kultura zaharkitua behin betiko baztertu duena». Mikel Basabe Aralarreko koordinatzailea eta datozten hauteskundeetarako Gipuzkoako zerrendaburu Aintzane Ezenarro izango dira hizlari. 20:00etan hasiko da saioa, Kultur Etxean.

GIZARTEA ▶

# Elkartasun Azoka asteburuan, Nikaraguako emakumeen alde

Amarozko auzo elkarteak antolatu du, eta ostiraletik igandera jarriko dute, Kultur Etxean; Malpaisillo herriko emakumeen zentrorako jasoko dute dirua

LEIRE MONTES

Azken urteotan egin duen moduan, aurten ere Elkartasun Azoka antolatu du Amarozko auzo elkarteak, Tolosako Udalaren laguntzarekin. Gaur, azokan ateratako diruarekin lagunduko den proiektuari buruzko solasaldia izango da, Kultur Etxean. Leku berean zabalduko dute, ostiraletik igandera, Elkartasun Azoka.

Bi helburu ditu Amarozko auzo elkartearen merkatuak: batetik, «Tolosako herritarrek beste herrialdeetako egoerarekin sentsibilizatzea» du xede ekimenak; bestetik, Nikaraguako Malpaisillo herrirako dirua biltzea du helburu.

Hain zuzen ere, Malpaisillo herrian, emakumeen zentroa bultzatzen urte asko daramatzan Mertxe Brosa andoaindarraren bidez, Xochilt Acatl



Malpaisillo herriko Xochilt Acatl emakumeen zentroa. HITZA

emakumeen zentroan antolatutako emakumeen heziketari laguntzeko proiektua babesteko du Amarozko auzo elkartearen merkatuak. «Larreynaga-Malpaisillo udalerrian bizi diren emakumeei Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasketak prozesuetan jarraitortasuna ahalbidetzea» da helburua. «Horrela, emakume horiek

ikasketak amaitu ahal izango dituzte, eta osoko jabeakuntza prozesuan sendotu egingo dira; horrez gain, hezkuntza eta gizarte lan aukera gehiago izango dituzte», azaldu dute Amarozko auzo elkarteak. Proiektuak 92 emakumeri «egiten die zuzenean mesedea», eta zeharka, berriz, «beren familiei eta komunitatei».

20.000 eurotik gorako aurrekontua du proiektuak. Horretatik, Tolosako Udalaren Nazioarteko Lankidetzaren Programaren Finantzatzeko Hitzarmentaren bidez, 4.300 euro bildu dituzte. «Gainerakoa bildu gabe dagoenez», herritar guztiei laguntzeko deia egin die auzo elkarteak: «Denei dei egiten diegu bakoitzak ahal duen neurrian proiektu honetan parte har dezan, bai azokara gerturatu eta bertako produktuak erosiz, bai materiala emanez, bai ekarpen ekonomikoa eginez».

## Hitzaldia eta bideoa, gaur

Nikaraguako Malpaisilloko emakumeen zentroan martxan jarriko den proiektu laguntzeko bideratuko da Elkartasun Merkatuan eta diru bilketan jasotakoa. Proiektu horren berri emateko, bideo emanaldia eta hitzaldia antolatu dituzte, gaur. *Emakumeen heziketari laguntzeko proiektua* izenburupean, Edurne Bengoetxea Mugarik Gabe taldeko kideak emango du Amarozko auzo elkarteak eta Tolosako Udalak diruz lagunduko duten proiektuaren berri. 19:30ean hasiko da saioa, Kultur Etxean. ◀

## NOLA LAGUNDU? ▶

Azokan produktuak erostean gain, laguntza emateko bi bide daude:

**Material bilketa.** Altzariak, arropa, diskoak, jostailuak eta abar eman daitezke. Egutegia, 19:00etatik 20:30era, Auzo Elkartearen —Amaroz jatekearen gainean—; edo Elkartasun Merkatuaren egunetan, Kultur Etxean. **Diru bilketa.** Kutxako 2101 081 18005020235 kontu korrantean dirua sartuz.



Deustuko  
Unibertsitatea  
Donostia

### Sesió Informativa

Eguna: MARTXOAK 2, asteazkena

Lekua: Antonio M<sup>o</sup> Labaien  
KULTUR ETXEA  
Foruen Plaza, 1  
TOLOSA

Ordua: 19etatik-20etara

Orain da  
zure garaia

- BERRIA! Titulazio Bikoitza: ESTE-ESIDE. Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Lizenziatura eta Kudeaketako Informatikako Ingeniaritza Teknikoa. (6 urte)
- ESTE. Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza. (5 urte)
- Giza Zientziak: Komunikazioa. HUCO. (4 urte)
- Giza Zientziak: Enpresa. HUEM. (4 urte)
- Turismo. (3 urte)
- Gizarte Lana. (3 urte)

Ikasle berrientzat informazioa  
Tel: 943 326 308

www.comunicaciondonostia.deusto.es

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

**ARETO FUTBOLA**  
Hegoalde-Foticos Zaragoza 10-4

**1. Maila A.**  
Ibarra-Soloarte 4-2

**1. Maila B.**  
Laskorain-Inter Euskal Sofa XX

**Liga Autonomikoa**  
Tr.Lakunza-Gure Txokoa 6-6

**Nesken Liga**  
Idiazabal-Tinta 1-1

**Jubenilen Liga**  
Lauburu-Gsi Bilbao EHU 7-2

**ESKU PILOTA**

**GARZIANDIA TXAPELKETA**

Antxoardanaz-Irurita/  
Prados-Garcia 10-22  
Alzugarai-Mitxeko/  
Lizaso-Yubero 22-8  
Dominguez-Berasaluz/  
Aranzabe-Orbegozo 22-15

**EUSKADIKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA**

**Kadeteak (finala)**  
Aurrera Saiaz (Tellebea)-San Miguel

(Peñas) 22-16  
**II. BERRIA TXAPELKETA**

**Kadeteak**  
Aurrera Saiaz (Tellebea-Artola)/ Umore Ona (Narbarte II.a-Madariaga) 15-22

**Jubenilak**  
Aurrera Saiaz (Telleria-Gaztañaga)/ Umore Ona (Apeztebea-Eskudero) 14-22

**Nagusiak**  
Aurrera Saiaz (Renobales-Oteiza)/ Umore Ona (Loiarte-Regegi) 22-14

Guztira:  
Aurrera Saiaz/Umore Ona 51-58

**UDABERRI TXAPELKETA**

**Kadeteak 3. maila**  
Aurrera Saiaz (Lasa)-Eibar (Montiel) 21-22

**Jubenilak 1. maila**  
Gazteleku (Telleria)-Aurrera Saiaz (Senperena) 5-22

**Nagusiak 3. maila**  
Aurrera Saiaz (Pikabea)-Beloki (Galarraga) 16-22

**ZESTA PUNTA**

**ERRENDIMENDUZKO TXAPELKETA**

**Infantilak**  
Beotibar-Zumaia 2 30-18

**EUSKAL HERRIKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA**

**Jubenilak**  
Berriatua-Beotibar 35-26

**UDABERRI TXAPELKETA**

**Nagusiak**  
Gazteleku 1-Beotibar 1 24-35

**FUTBOL 7**

**1. Maila. Itxiera torneo.**  
Bataplan-Ibarrako Gazte Asanblada 3-4

**2. Maila A. Itxiera torneo.**  
Lanbroa Dickens-Akelenea 6-1

**2. Maila B. Itxiera torneo.**  
Fermax Instal.-Bar Shanti Kirolak 0-2

**FUTBOLA**

**Gorengo Maila.**  
Mondragon-Tolosa 0-0

Saillkapena ▶  
**1. Tolosa** 53 puntu  
2. Ordizia 53 puntu  
3. UPV/EHU 52 puntu  
4. Zarautz 46 puntu  
5. Real Union B 42 puntu  
6. Trintberpe 41 puntu

**Nesken Liga (igoera fasea).**  
Tolosa-Luberri 3-2

**Lurraldekako 1. Maila.**  
Beti Onak-Aurrera 1-0  
Beti Ona-Tolosa B 3-0

Saillkapena ▶  
1. Allerru 45 puntu  
2. Euskalduna 42 puntu  
3. Irun 092 39 puntu  
14. Amara Berri 19 puntu  
15. Ordizia 12 puntu  
**16. Tolosa B** 9 puntu

**Lurraldekako 2. Maila. Igoera.**

Trintberpe-Danena 5-1  
Intxurre-Sanpedrotarra 0-0

**Kopa.**  
Amaroz-Zestoa 5-0

**Jubenilen Euskal Liga.**  
Tolosa-Zugatzarre 1-0

**Jubenilen 1. Maila.**  
Behobia-Billabona 3-3  
Hernani-Intxurre 1-1

**Kadeteen Euskal Liga.**  
Antiguoko-Tolosa 4-0

**XAKE**

**Gipuzkoako Liga.**  
Ibarra Tolosa-Agustin de Leiza 4-0

**TELEFONOAK ▶**

**LARRIALDIAK**

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaldia.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Ibarraldia.** Osasun etx.: 672411  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Tolosa.**  
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**  
Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur.** Ugarte, M.T. Euskal Herria 46 (Ibarra) 943 67 32 74.  
Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza). 112

**TOLOSALDEKO HITZA**

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publici@tolosaldeko hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.  
villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info  
**Anoetaldia.** 687 41 00 22  
anoetaldia@tolosaldeko hitza.info  
**Ibarraldia.** 687 41 00 32.  
ibarraldia@tolosaldeko hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko hitza.info  
**Leitzaldeko.** 687 41 01 18.  
leitzaldeko@tolosaldeko hitza.info

**TOLOSA ▶ FUTBOLA**

# Berdinketarekin itzuli da Tolosa Arrasatetik, nahiz eta aukerak izan

Mondragonekin 0-0 egin zuen, zelaiaren egoera txarrak markatu zuen partidu batean; lidergoan jarraitzen du

**ERREDAKZIOA**

Tolosak ezin izan zuen larunbatean Arrasaten irabazi nahiz eta aukera batzuk izan, Atxabalpe futbol zelaiaren egoera txarrak markatu zuen partidu batean. Baloia gelditu egiten zen eta ez zuen korritzen. Azkenean, golik gabe bukatu zen partidua.

Lehen zatian partidua oso berdintuta egon zen, asko borrokatuz zelaiaren erdialdean, baina gol aukerarik izan gabe, bai etxekoek, bai kanpokoek.

Bigarren zatian, 52. minutuan lehen aukera —eta azkena, bakarra izan baitzen— izan zuen Mondragonek Asierrren hanketan, baina ez zuen golik lortu. 65. minutuan tolosarren lehen aukera garbia izan zen:



Tolosa-Pasajes, Berazubini jokatuak azken partidua. I. TERRADILLOS

korner baten ondoren Patxik izan zuen area ertzetik, baina baloia langatik gorago bidali zuen. Handik gutxira Oruek beste aukera bat izan zuen, baina baloia zutoinetik oso gertu joan zen kanpora. Geroxeago Elolak beste gol bat failatu zuen errazena atean sar-

tzea zenean. Azken minutuetan beste bi aukera garbi izan zuten Tolosak: Regillagak 85. minutuan eta Aranguren 90. minutuan. Hala ere, baloia ez zuen ateko marra zeharkatu eta golik gabeko berdinketarekin bukatu zen Mondragon eta Tolosa arteko partidua.

**MONDRAGON ▶ 0**

**TOLOSA ▶ 0**

**Mondragon.** Mondragon; Torres; Gonzalez; Argider; Iker; Ruben (65m Maikel); Arkaitz; Loiti (30m. Lopez, 85m. Jokin); Muxi; Keixi; Asier (61 m Ina).  
**Tolosa.** Apeztebea; Aimar; Jon; Unai (70m. Ilunbe); Errasti; Artola (45 m. Regillaga); Romero; Orue; Lasa (82m. Aranguren); Elola; Blanco. (45m. Prados)

**Lider, hala ere**

Emaitza honen eta Ordizia eta EHUren garaipenen ondoren, Tolosa lidergoan mantentzen da, baina goierritarrek berdin duta puntutan eta EHU puntu bakarrera dutela.

Hurrengo larunbatean liderrekin etxean jokatu du Lesakako Beti Gazteren aurka. Saillkapenean behelaldean dago —hurgarrena atzetik hasita—, baina «partidu oso zaila» izango dela dio Jose Mari San Sebastian delegatuak. Tolosarrak lesionatuta jarraitzen duten Doiartzabal eta Gorkaren bajak besterik ez dituzte izango, Aierbek zigortutako partidua bete ondoren.

**iragarki laburrak ▶**

**LANA**  
**Etxeko lanak.** Iruran neska bat behar da ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko, 7:30etik 9:45era eta 16:30etik 18:15era. Deitu: 618 056 781.  
**Sukaldaria eta tabernaria.** Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 68 21 54.  
**Igeltseroa.** Mutil bat behar da, igeltseritzako ofiziala 2. mailakoa. Deitu: 615 748 661.

**ALOKAIRUAN**  
**Garaje itxia.** lurre auzoan garaje itxia alokatzen da. 609 43 59 07 edo 665 75 87 74.

**ESKERTZA ▶**

**JUANES ECHECHIPIA LICEAGA** jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuen eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztiok.

Tolosa, 2005eko martxoaren 1a



## ZIZURKIL ▶ AIZKORA



Joseba Otaegi —eskuinean— eta Igerza, txapela buruan kopa albatzen dutela. IMANOL OTEGI/ARGAZKI PRESS

## 'Urrezko' txapela lortu zuen Otaegik Azpeitian

Gazteen mailako Urrezko Aizkora txapelketa irabazi zuen Arkaitz Iriarte 'Igerza' bikotearrekin larunbat gauean

IMANOL GARCIA

Lehenengo aldia da Urrezko Aizkora jokatzeko dela bikoteka gazteen mailan. Ez da harrizkoa, beraz, Joseba Otaegi zizurkildarraren poza txapelketa irabaztean, bere lehenengo urtea baita aizkora aritzen dela eta parte hartzen duen lehenengo txapelketa. «Oso gustura lortutakoarekin», azaldu dio Iriarte aizkolarik gazteak.

Arkaitz Iriarte Igerza urres-tildarrarekin aritu zen bikote Otaegi. 16 eta 1eko emaitza lortu zuten, Zubiaga eta Rodriguezen aurka, hau da, proba

guztiak irabazi zituzten. «Aurretik, txapelketan bikote honen kontra aritu ginenean Zubiagak irabazi zidan bion arteko lehian, baina finalean nik irabazi nion», azaldu du Otaegik. «Hor ikusi genuen txapela lortzeko aukera handiak genituela». Lau aizkolarik batera aritzen diren proban, lehenengo Igerza sailkatu zen eta gero Joseba Otegi zizurkildarra. Hirugarren postuarekin lortu zuten aurkariak finaleko puntu bakarra.

Aizkolarik zizurkildarrak ondoan izan dituen guztiei eskaintzen die txapela eta batez

ere Nemesio Agirreri, aizkora-ren munduan sartu dionari. Zizurkil inguruko jende asko joan zen Azpeitira eta oso giro ona izan zela azaldu du Otaegik: «Eskandalua egin zuten, behintzat».

Zizurkildarrak ez du atsedendirako unerik izango. Igande honetan Urrezko Aizkora-ren banakako txapelketa hasiko da. Otaegi Bidegoianen lehiatuko da Amiano altsasuarren kontra, 12:00etan. «Banakakoa beste txapelketa bat izango da. Esperantza gutxiago daukat aurrera egiteko», dio Joseba Otaegik.

## VILLABONA ▶ KROSA

## Erniobeakoen emaitza onak Euskadikoan

Tamara Lozano txapeldunorde eta infantil mutilak taldeka hirugarren krosean



Erniobeako lau korrikalari mutilak —erdian— probako irteeran. HITZA

I. GARCIA

Villabonako Ernioeak ikastetxe-ko kirolariak herenegun Amurrión izan ziren Euskadiko Eskolarteko Kros Txapelketan lehiatzen. Tamara Lozano bigarren postua lortu zuen infantil mailan, 2.500 metroko ibilbidean. 10 minutu eta 59 segundo egin zuen, irabazlearengandik sei segundutara. Infantil mailan ere, mutiletan, hirugarren postua lortu zuten taldeka Ernioeakoek, 4.000 metroko ibilbidean. Eneko Garinek (10. postua), Eneko Tapiak (24. postua), David Rodriguezek (28. postua) eta Jeffrey Martinek (31. postua) osatu zuten taldea. Bilbo-ko Artxandape ikastetxea izan zen lehenengoa 47 punturekin. Bigarrenkoa Ordiziako Oianguren izan zen 52 punturekin. Ernioeak, berriz, 93

puntu lortu zituen. Taldearen entrenatzaile lanetan Joxean de la Iglesia aritzen da.

Otsailaren 20an, berriz, kirolari berdinak Lazkaoan Gipuzkoako Eskolarteko Kros Txapelketan aritu ziren.

Infantil nesketan (2.439 metro) Tamara Lozano Gipuzkoako txapelduna izan zen, 9 min. 38 seg. denborarekin. Infantil mutiletan (3.252 metro), Ernioeakoak txapeldunordeak izan ziren ikastetxeka. Eneko Garin bosgarren, Eneko Tapia bederetzigarren, Jeffrey Martin hemezortzigarren eta David Rodriguez hemeretzigarren sailkatu ziren. Taldeka lehenengoa Ordiziako Oianguren, 32 punturekin. Bigarren, Ernioeak, 51 punturekin.

Emaitza hauek direla eta Ernioeako kirolariak lortu zuten Euskadiko Txapelketan parte hartzeko txartela.

hitza

lagunen  
**txokoa**

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILKAPAINJEGIA  
**honekin**

TOLOSA  
Tel.: 943 65 24 30

**kanikak**

San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**

Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

BIDEGOIAN ▶ KIROLA

# Aurrera-Saizek agur esan dio txapelari

II. Berria Txapelketaren final zortzirenak jokatu zuten larunbatean

NOELIA LATABURU

Aurrera-Saiazen ilusio guztiak zapuztu zituen Goizuetako Umore Ona pilota taldeak asteburuan. Goizuetarrak Bidegoiangoa eta Tolosako taldea II. Berria Txapelketatik kanporatu zuten larunbatean Beotiba-  
ren jokaturako final-zortzirenetako norgehiagokan. Dena den, Luis Galarraga, pilota tal-

deko arduraduna, «gustura» azaldu da bere mutilek eginiko jokoarekin.

Lehen txandan kadeteak aritu ziren. Bi gazteek ondo hasi zuten norgehiagoka eta bederatziratu puntuko alde izatera heldu ziren. Baina Telletxeak aurreko egunean jokaturako Euskadiko Kluben Txapelketaren finalaren pisua eta nekea nabaritu zituen eta bikotea behe-



Larunbatean kadeteek jokaturako norgehiagoka. NOELIA LATABURU

ra etorri zen. Azken emaitza 15 eta 22 izan zen. «Hurrengo fase-rako txartela lehen norgehiagoka honetan galdu genuen», aitortu zuen Galarragak.

Bikote jubnilak ere galdu egin zuen bere partida. Telleria eta Galarraga gazteek osatzen duten bikotea 14 eta 22 egin zuten. Galarragak kolpe handia hartu zuen eta zaila egin zitzaion norgehiagokan sartzea, joko polita erakutsi zuten arren.

Nagusiek, aldiz, bere norgehiagoka irabazi zuten; alde ez zen nahikoa izan baina eta amaierako markagailu orokorra Goizuetakoen alde jarri zen. «Gure nagusiak oso ondo aritu ziren, baina beraiek zortzi tanto nahikoak izan zituzten irabazteko», azaldu zuen Galarragak. Pena handiz utzi dute II. Berria Txapelketa baina gogotsu daude orain etorriko direnen aurrean.

ALEGIA ▶ KULTURA

## ‘Uzak’ filma turkiarra gaurko zine-klub saioan

Gaztetxean izango da ikusgai, 21:30ean

N. LATABURU

Gaur gaualde zine-klubaren saio berria izango da Alegiako Gaztetxean, 21:30ean. Aukeraturako filma Nuri Bilge Ceylan zuzendariaren *Uzak*—«Urrutikoa» da bere itzulpena—turkiarra da. Filmak gizartearen gaineko hausnarketa proposatzen du.

Istanbulgo negu gorrian ko-

katzen da istorioa eta elkar artean komunikaziorik ez duten bi gizonen elkabizitzaz dihardu. Proposamen honekin zuzendariak gai ezberdinak jorratzen ditu, besteak beste, barkadatea, familia eta langabazien ondorioak. Honen guztiaren emaitza gai gogorrez osaturiko filma da, argazki zoragarri batez apaindua; ziur bat baino gehiago liluraturik



Filmaren iragarpen kartela. HITZA

aterako dela paisaia eta beste-lakoekin.

Pelikula honek sari ezberdinak eskuratu ditu, azkena Donostiako Zinemaldian kritikoei ematen duten Fepresci saria, 2003. urtean.

FITXA TEKNIKOA ▶

**Gidoia eta zuzendaritza:** Nuri Bilge Ceylan.. **Testua:** Herrialdea. Turkia. **Urtea:** 2002.

**Iraupena:** 110 minutu. **Interpretazioa:** Muzaffer Özdemir, Mehmet Emin Toprak, Zuhâl Gençer Erkaya, Nazan Kırılmış, Feridun Koç, Fatma Ceylan, Ebru Ceylan.

**Ekoizpena:** Nuri Bilge Ceylan.

**Argazkia:** Nuri Bilge Ceylan. **Muntaia:** Ayhan Ergürsel y Neri Bilge Ceylan.

**Zuzendaritza artistikoa:** Ebru Ceylan.

ALBIZTUR ▶

## Telletxea, Euskadiko Txapelketan garaile

N. LATABURU

Xabier Telletxea Albizturko gazteak garaipena eskuratu du Euskadiko Kluben Pilota Txapelketan, aurreko ostiralean Azkoitiako frontoian jokatu zuten finala irabazi ostean.

Aurrera-Saiazeko kadetak sei puntuko aldearekin garaitu zuten bere aurkaria. Lizarrako San Migel taldeko Peñas kadetea, hain zuzen.

ALEGIA ▶

## Korrika Batzordearen bilera, gaur

Gaur 19:30ean Alegiako Korrika Batzordeak bilera antolatuko du Alegiako Kultur Etxean, Korrika 14aren harira. Bilera honen helburua Korrikaren 14. edizio honen antolaketari buruz hitz egitea eta lehen prestaketekin has-tea izango da. Herriko kultur eta kirol taldeak zein herritar guztiak gonbidatuak daude antolaketan parte hartzeko eta batzordeak deialdia luzatu nahi du gaurko bilerara ager daitezen animatuz.

IKAZTEGIETA ▶

## Santa Agedan bildutako dirua, presoentzat

Ikaztegieta Santa Ageda egunean diru eske ateratako biztanleek 716 euro bildu zituzten gutzira. Jasotako kopuru guztia presoentzat izango dela jakinarazi dute. Parte hartu zuten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiete. Bide batez, euskal preso politikoan egoera salatu nahi izan dute. Bildutako dirua, eta Etxerat-i emango diotena, egoera hau hobetzeko balio dezala eskatu dute, hein batean behintzat.

## IBARRA ▶ KULTURA

# II. Mendi Astea izango da igandea bitarte

Erakusketak, hitzaldiak eta mendi irteerak izango dira; herritarren parte-hartzea bultzatu nahi dute antolatzaileek

## IÑIGO TERRADILLOS

Atzo eman zitzaion hasiera Haitzetanraju mendi elkarteak antolaturiko Ibarako II. Mendi Asteari. Mendiarekin erlazioa duten ekitaldiez gozatzeko aukera izango da, beraz, aste osoan zehar.

Mendi Asteari hasiera emateko igandea bitarte argazki erakusketak interesgarria prestatu dute mendi elkarteok Kultur etxean; jende ezberdina ateratako ateratako mendietako argazkiak ikusi ahal izango dira bertan.

Gaur, Jon Goikoetxea *Bolik* Everest-eko diapositiba emaldea eskainiko du. Munduko gailurrik garaienera igo den lehen ibartarra da Goikoetxea.

Angel Navas-ek eskainita Hego Poloko ibilaldiko emaldea izango da ikusgai ostegunean; kiimari latzena sufrutuz igaro zituzten bi hilabete Hego Poloan zehar.

Larunbatean eskalada irteera eta igandean mendi irteera prestatu dute. Ibilaldi honen ondoren bazkaria izango da nahi duenarentzat. Mendi Astea amaitzeko Gaztetxean antzerki saioa antolatu dute.

HaitzetanRaju mendi elkarteok herritarrek ekitaldietan parte hartzea animatu nahi dituzte, lagunarteko eta giro herriko batean ahalik eta hobekien igaro dezaten guztiak.



HaitzetanRaju taldekoak, antolaturiko mendi irteera batean. HITZA

## EGITARAUA ▶ II. MENDI ASTEA

## MARTXOAREN 6A BITARTE

**Argazki erakusketak.** Mendiko argazki erakusketak Kultur Etxean.

## GAUR

**18:30.** Erraustegien inguruko hitzaldia Gaztetxean.

**20:00.** Jon Goikoetxea *Boliren* Everest-eko diapositiba emaldea Kultur Etxean.

## ETZI (MARTXOAK 3)

**20:00.** Hego Polo-ko ibilaldiko

emaldea Angel Navas-ek eskainia Kultur Etxean.

## LARUNBATA (MARTXOAK 5)

**9:00.** Eskalada irteera Santa Barbara-ra.

## IGANDEA (MARTXOAK 6)

**9:00.** Mendi irteera Ibarra eta inguruetako mendietatik zehar. Ondoren bazkaria nahi duenarentzat.

**17:00.** May en klowcierto izenburupean Antzerkia Ibarako Gaztetxean.

## IBARRA ▶ KIROLAK

## Merezitako garaipena lortu du Ibarrak

Soloarte mendean hartu zuen Ibarrak; Lauburu ligako txapelkun berria da jada

## I. TERRADILLOS

Ibarrak merezimendu osoz irabazi zuen Belabieta kiroldegian jokatu zen larunbateko partida Soloarteren aurka.

Nahiko berdindurik hasi zen norgehiagoka. Soloarte taldeak estreinatu zuen markagailua eta gol honekin Ibarra zuzpurtu eta partidaren jabetza hartu zuen.

Berdinketaren gola atsedendirako 2 minutu geratzen zirenean etorri zen Xaviren eskutik Ustaritzen jaurtiketaz baliatu ondoren.

Bigarren zatian Ibarrak partidaren jauna eta jabe zela erakutsi zuen. 3. minutuan jarri zuen aurretik Hautsik etxeko

taldea. Gol honek min handia egin zion talde bizkaitarrari eta ibarrakoek, berriz, alde handitzeko gogoz aritu ziren amaierarte.

3 minuturen buruan Victorrek jaurtiketa bortitz bat egin eta sare barrura sartu zuen baloia 3-1eko eginez. 4-1eko partida amaitzeko 5 minutu geratzen zirenean etorri zen. Soloartekoek, bitartean, gerturatu ziren bigarrena sartu baitzuten, baina horrela geratu zen azkenean markagailua.

Bestalde, Lauburuoko liga amaitzeko 3 partida geratzen direnean eta azkena irabazi ondoren txapelkun berriak direla esan daiteke.

## IBARRA ▶

## Ohiko osoko bilkura egingo da bihar

Bihar 18:00etan egingo da Ibarako udaletxean ohiko Osoko Bilkura. Hitz egingo diren gaien artean, *Arau subsidiarioen berrikusketa* eta *Ingurumenaren gaineko baterako ebaluazioa* dokumentuuen aurrerapena, eta lehiaketa bidez elektrizitate espezialitateko lanpostua kontratatzeko oinarriak aurkeztea izango dira.

## BERASTEGI ▶

## Emakumeen eguneko afarian izen-ematea

Martxoaren 8an Emakumearen Eguna ospatuko da, eta hori dela-eta martxoaren 5ean, afaria antolatu dute Berastegin. Bertako Kako jate-txean egingo da afaria, eta animatzen direnek izen emateko bertara joan edo 943 68 31 51 edo 943 68 33 38 zenbakietara hots egin beharko dute. Bihar izango da azken eguna izen emateko.

## iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea  
70609A  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-mail: enria@enriainmobiliaria.com  
www.enriainmobiliaria.com

**Alegia.** San Joan kalean 161 m<sup>2</sup>-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

**Anoeta.** 60m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. Logela, egongela, sukaldia, bainugela. berokuntzarekin. 192.325 euro.

**Berrobi.** Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trastelekua eta garajearekin.

**Donostia.** Sagues auzoan etxebizitza salgai igogailuarekin. Eguzkitsua.

**Ibarra.** Eraikuntza berriko bi logelako etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

**Ibarra.** San Inazio auzoan etxebizitza berokuntzarekin.

**Ikaztegieta.** Sei etxe abikiren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

**Irura.** Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela. trastelekua eta garajearekin. Ezin hobeto.

**Irura.** Borda ikusgarria, ikusteko modukoa!

**Legorreta.** Pisu merkea, 3 logelarekin, sukaldia, egongela eta bainugela (berritua). Berokuntza. 142.440 euro!

**Tolosaldea.** Eraikuntza berriko bi bizitzako etxebizitza zoragarria salgai. Porxe eta lorategiarekin. Ikusgarria!

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat

etxebizitza salgai 142.440 eurotik aurrera.

**Tolosa.** San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

**Tolosa.** Amaroz auzoan oso egoera onean dauden etxebizitzak eta berritzeko daudenak salgai.

**Tolosa.** Belate. Hiru logela eta bi bainugela. Berritua.

**Tolosa.** Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrearekin. Aukera paregabea!

**Tolosa.** Erdialdean. 130 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

**Tolosa.** Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza. Ikustekoa!

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean guztiz berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean guztiz berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean guztiz berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean guztiz berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

**Tolosa.** Iurre inguruan guztiz berritutako bi logelako etxebizitza.

**Tolosa.** Iurre. Bi logela, sukaldia, egongela, bainugela. Oso egoera onean.

**Tolosa.** Larramendi. Orain dela gutxi eraikuntza. Bi logela, sukaldia, egongela eta trastelekua. Berokuntza. Ezin hobeto.

**Tolosa.** Larramendi. 3 logela, egongela, sukaldia berritua. 2 bainugela. Igogailua.

**Tolosa.** Santa Klara, 111 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza ederra, igogailuarekin, 4 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Ikuspegi ederrak. 228.385 euro.

**Tolosa.** Agintari kalea. Eraikuntza

berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Trastelekua eta berokuntzarekin.

**Tolosa.** Trinketen. Hiru logela bi bainugela eta egongela ederra. Ezin hobeto!

**Tolosa.** Zumalakarregi. Toki ezin hobean. Ibai aldera bistak. 105 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Guztiz berritua. Estreinatzeko!

**Villabona.** Larrea auzoan eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua. Zizurkil. Ernio Bidea. Eraikuntza berria. 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela. Trastelekua pisuan eta ganbaran. Ezin hobeto!

**Tolosa.** San Frantzisko ibiltokian 46 m<sup>2</sup>-ko lokal komertziala.

**Tolosa.** Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

## Ikurrina ere salgai

Arazoi desberdinegatik herriko alkateari, Aralar bere taldeari eta EA-ri ustez, «gogoz kontra» ikurrinaren inguruan hartutako erabakiaz («zerbait» laburra esatea ezinbestekoa iruditzen zait. Egiten duzue-nengatik nolakoak zareten ondorioztatu baitaiteke. Horregatik:

- Leitzako herriak, edo beste modu batera esanda; herriaren gehiengo batek, ikurrina nahi du. Ikurrina nahi du, ikurrina borrokaren, biziraupen eta beste arazoi askoren artean, euskaldunon irudi eta ikur gisa agertu baita azken urteotan. Ikurrina nahi du, etxeko balkoietan, herriko sarreretan

edota eskolako karpetetan baina ikurrina nahi du esanguratsu diren tokitan; udaletxea adibiderik hoberena.

-Ikurrina, gure nortasuna, izaera eta euskaldun izateko nahia eta gogoa adierazteko herriak berak hartutako irudia da. Kontuan har, euskalduntasuna aldarrikatzeko aukerak gero eta murriztagoak direla. Guk geuk ez ditzagun bide hauek erraztu.

- Alkateak dio; «gogoz kontra baina». Nik galdetzen dut; nola entregatu behar duzue ikurrina, tolestuta? edo oihal-irudi historiko moduan gordeko duzue udaletxeko artxiboetan?

langile bati ken dezan aginduz. Gehiago irauteak ez al du merezi?

- Batzuk ikurrina mundu sinbolikoaren adierazpen bat beste-rik ez dela esanen dute. Baina sinbologi munduan eta egunerokoetan ere, Euskal Herria ez al da gehiegi galtzen ari? Ez al gara gehiegi desagerrarazten ari?

- Eta azkenik esan, aurretik esan bezala, urte askotako borroka izan dela ikurrina Herriko Etxean mantentzea. Azkenik, 1997an udalak ikurrina udaletxeko balkoian mantentzearen aldeko akordioa hartu zuen UPN-ren aurkako botoekin. Orain erabaki hau justifikatzerakoan alkateak dio: «...hala ere, kentzearen aldekoak gehiengo gara, EA eta gu eta UPN ere ados dago». (?)

- Herri honetan behin baino gehiagotan deitu edo joan behar izan dugu epaitegietara ikurrina kaleratzeagatik, bandeda espainola ez jartzeagatik... Mehatxu judiziala, mehatxu ezkutua (telefonoa, gutunak,...),... Mehatxuak sekulan ez dira falta izan. Eta orain, herriari inolako kontsultarik egin gabe, ikurrina behin baino gehiagotan erre duten horien laguntzarik gabe, zuek, erreferente horrekin amaitu nahi izan duzue. Ideologi inperialistari men egin diezue.

- Gehiegi esatea batzuentzat, baina «amorrutikoa» beste askorentzat. Batez ere erabaki hau hartu duten alderdiek kanpainan «desobedientzi zibila» beraien oinarritzko puntuetan jartzen zutela gogoratzen. Are gehiago, gogoratu besterik ez,

«ikurrinaren aldeko» legealdi honen hasieran eginiko manifestazio batean, besteren artean, Gara egunkariari Patxi Saenz alkateak eginiko erantzutetan zioena; «...udaletxean ikurrinik gabe baino, inabilitatua...». Eta orain?

Egoera hau, beste garai eta maila ezberdinekoa izan arren, aurreko urtetan hartutako beste batekin alderatzen dut, Nafarroako bereizketa ekarri zue-narekin, alegia. Urte batzuk igaro ondoren damua etor daiteke agian, baina orduan, zer?. Igaro den unea berriz ezin baita berriz harrapatu.

Erosotasunaren truk Herria saltzen ari ote garen galdetzen diot ene buruari. Galdetu ez, zurtartzen dut.

MIKEL ILLARREGI ELBERDIN  
LEITZAKO ALKATE OHIA ▶ LEITZA

LEITZA ▶ POLITIKA

# Herritarrek ikurrina jarri eta berriz kendu

Ostiralean ohiko udalbatzarrera jende mordoska joan eta, ordu batzuk iraun bazuen ere, balkobean jarri zuten ikurra

JAIONE ASTIBIA

Ostiralean, ohiko udalbatzarrera herriar mordoska azaldu zen ikurrinak bizkarrean.

Bezperan, otsailak 24, udaletxeko balkoitik ikurrina kendua zegoen alkatearen aginduz, «epaitegietako behin betiko sententzia bati kasu eginez», HITZari helerazi zioten oharrak zionez. Hori zela eta, erabaki horren eraginez hain zuzen ere, beren galdera, iritzi eta kezak plazaratu zituzten hantxe bertan eta erabaki horrekiko beren ez-adostasuna



Ostiral gauz, ordu batzutan balkoian egon zen ikurrina. JAIONE ASTIBIA

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



Ordizia. Erdialdeko apartamentua.  
Osozota berritua. Eguzkitsua. Modernoa.

Ebesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Konpontzeko eta konpondutako hainbat pisu. Informa zaitetz.

Ebesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** Konpontzeko, konpondutako, eraikuntza berriko pisuak. 33.000.000 pezetatik hasita.

Ebesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** Eraikuntza berrikoak. 3 logela. Apartekoa. Eguzkitsua. trasteleku. Garajea aukeran.

Ebesagasti. 943 69 68 56.

**Andoain.** Modernoa. Kapritxora berritua. 70 m<sup>2</sup>. Argitsua. Trasteleku.

Ebesagasti. 943 69 68 56.

**Andoain.** 104 m<sup>2</sup> erabilgarri. 4 logela. 2 balkoi. Eguneratzeko. Ikuspegjak.

Trasteleku. Ebesagasti. 943 69 68 56.

**Belauntza.** Erantsitako bila. 250 m<sup>2</sup>.

700 m<sup>2</sup>-ko lur-saila. Erdi berria.

Ebesagasti. 943 69 68 56.

**Alkiza.** Bila bakarra, lur-sailarekin.

Kapritxora. Informazio pertsonala.

Ebesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** Bila bakarra. 110 m<sup>2</sup> x 3 onuera. 2.500 m<sup>2</sup>-ko lur-saila Kokapen ona. Ebesagasti. 943 69 68 56.

**Behar da** eskaera handiagatik: pisuak, baserriak, landa-lurrak, eraikuntzarako lur-sailak, salgai edo alokeran.

agertu zuten, hastear zegoen udalbatzarrean: ikurrina balkoitik kentzeko erabakia, erabakia hartzeko modua bera, desobedientzia, ez-gaitze arriskua, ikurrinaren alde egindako borroka... moduko gaiak atera ziren eztabaidan.

Gehien bat herritar taldearen eta alkatea eta bere kide baten artean eman zen eztabaida. EAKoak isil mantendu ziren, aurreko egunetan erabakiaren aldeko jarrera azaldu bazuten ere.

Eztabaida ondoren, batzarrak aurrera jarraitu zuen. Baina ordurako bezperan hutsik utzitako mastan, berriz ere hantxe jarria zuten ikurrina. Horrelaxe iraun zuen ordu pare batez, batzarrak bukatu eta berriz ere, kentzeko agindua eman eta zitu eta protesten artean kendu zuten arte.

Hurrengo eguna, larunbata, berriz ere jarrita agertu zen, haizetan zabal-zabal —besteak txirikordatuta zeuden, normalean bezala—, baina biharamonean berritua, masta hutsik ageri zen.

LEITZA ▶

## Herri batzarrak gaur 20:00etan ikurrinaz

Gaur, asteartea, 20:00etara, herri batzarrak egiteko deialdi zabala egin du herritar talde batek, ikurrinaz hitz egiteko. Jakina da, azken egun hauetan, udaletxeko balkoitik ikurrina kendu izanak, iritzi eta sentimen aurkakoak eragin dituela herrian.

LEITZA ▶

## Hilik aurkitu dute leitzar gizaseme bat, Iruñerrian

Iruñerrian Leitzako gizaseme bat aurkitu zuten hilik larunbatean. E. G. D. 52 urteko leitzarrek, ustez ordu batzuk desagertuta zeramatzan eta familiak horren berri emana zuten zegoekin lekuan. Baina ez zuten onik aurkitu. Igan-dean egin zituzten hiletak.

hilberriak ▶

esleak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 943 65 5695 ▶ tolosaldeko@tolosaldeko.hitzak.info

**Emilio Guerra**

(Josune ikaslearen aita)

Leitzako Erleta eskolako ikasle, irakasle, langile eta gurasoek beren laguntasuna adierazi nahi diete Josune eta bere familiari, une samin hauetan.

Leitzako Erleta eskola

LEITZA, 2005eko martxoaren 1a



**Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 1a, asteartea ▶ III. urtea**

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartzena, Aizua, Abotzu, Aegia, Aizua, Alizo, Amadeita, Anorta, Anso, Balamain, Balaizta, Berastegi, Berrota, Elizain, Herrialde, Ibarra, Itzaldetxe, Irujo, Lizarra, Lizaso, Lizaso, Oteiza, Oteiza, Tolosa, Villabona, Zuzuki  
besteriak: Leizaldetxe, Euzkara Batzordea

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurjaritza,  
Kultura Saila

943  
ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

04

hotzena

-2

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA  
ARALARREN



Guardetxe: ez / bai  
Albi: ez / bai



Pagomari: ez / bai  
Igaratza: ez / bai

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Berastegi.** Emakumeen eguneko afaria antolatuta dute martxoaren 5ean Kako jatekian. Izena emateko 943 68 31 51 edo 943 68 33 38ra hots egin. Bihar da azken eguna.

**Ibarra.** II. Mendi Astea: Erraustegien hitzaldia 18:30ean Gaztebaxean eta Jon Goikoetxea *Boli*-ren Everesteko diapositibak 20:00etan Kultur Etxean.

**Tolosa.** Malpaisilloko (Nikaragua) emakumeen zentroaz hitzaldia Kultur Etxean 19:30ean.

**Tolosa.** Banka elektronikoa ikastaroa KZgunean 17:00etatik 19:00etara: kontuen mugimenduak, traspasoak... Mikroenpresa eta autonomoentzat. Doan.

### ERAKUSKETAK

**Ibarra.** II. Mendi Astearen baitan, mendiko argazkiak Kultur Etxean.

**Tolosa.** Carmelo Ortiz de Elgearen koadroak. Aranburun Jauregian.

**Villabona.** Gorka Egurenen Pirinioetako argazkiak. Maxola tabernan.

### ZINEMA

**Tolosa.** *El vuelo del Fenix* Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean. Ikuslearen eguna.

# Badator Korrika

**TOLOSALDEA ▶ Ostiralean izan zen 'Ezekiel' antzezlan Korrika Kulturalaren barnean; gaur batzordeen bilerak dira Alegian eta Iruan**



Ezekiel antzezlaneko irudia: aurrean bi aktoreak eta atzean Sagarroi musika taldeko kideak jotzen. J.SAIZAR

### ERREDAKZIOA

**A**tzean Sagarroi taldeko lau musikariak zuzenean jotzen. Aurrean Ezekiel eta Osses (Miren Gaztañaga eta Ander Lipus aktoreak—Martxel Mariskalen Ezekiel nobelaren oinarritutako testuak

esaten. Argiek ere paper handia izan zuten antzezlan. *Ezekiel* tragedia «errealista magikoa» zen. Ostiralean izan zen Tolosako Leidor zineman Aurrean, eserlekuetan, jende mordoia bildu zen kanpoko hotzari aurre eginez. «Globalizazioaren eragin bortitza eta

egungo gizartearen adibide xume eta aldi berean kritikoa» erakutsi zuen. Bi aktoreak bizi-zaren eta heriotzaren arteko zauri tragikoan aritu ziren borrokan. Maitasuna, familia, lagunak, herria, mundua eta ekintza zituzten gaiak.

Korrika Kulturalaren egita-

rauan kokatutako ekitaldia izan zen. Tolosaldean eta Leizaldean eratu duten bakarra.

### Korrika Batzordeak

Horrekin batera, eskualdeko hainbat herritan Korrika Batzordeak ari dira sortzen eta ekitaldiak antolatzen. Ostiralean bertan AEKko Joxe Leon Otaño Amezketan aritu zen AEKri eta Korrikari buruz solasean. Beste hainbat ekitaldi eta Korrika Txiki ere antolatuko dituzte datozen egunetan. Batzordeak bere bilerak ari dira antolatzen, talde eta herritar guztiei irekiak. Gaur bertan Alegian Kultur Etxean eta Iruan udaletxean izango dituzte, biak 19:30ean.

Korrika Laguntzaile egiteko txartelak salgai daude Raku, Elurra eta Laier tabernetan eta Kopi-bat dendan 12 eurotan. Pin bat eta txartela jasoko dute. Euskal Herriko 300 denda baino gehiagotan beharpenak dituzte.

Gogoratu Korrika hilaren 10ean hasiko dela Orreagan eta 20an amaituko dela Bilbon. Leizaldetik 13an goizaldean eta Tolosaldean 16an goizaldean pasatuko da.

## AGURRAK ▶



### URTE ASKOTARAKO

**Juan Miguel eta Maria Jesus (Villabona).** Gaur 25 urte ezkondu zirela. Zorionak eta egun ona pasa familaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Mateo Zubeldia Suso (Lizartza). Atzo 10 urte. Zorionak Lide, Leire eta familaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Mirari Merino Lobo (Tolosa). Gaur 7 urte. Ondo pasa eta muxu handi bat familaren partetik.



**AUPA IÑIGO!**  
Txapea eta ilegalizazio guztien gainetik, aurrera! Batasuna.



**ZORIONAK**  
Felisa Zuriarrain. Familaren partetik, batez ere Lorea, Mikel, Axier eta Gorkaren partetik.



### EUSKAL PRESOAK BORROKAN - ELKARTASUN MEZUAK

Iñigo, Eider, Ekaitz, Minde eta Pello. Iepa koadrila! Eutsi goiari! Zeruen izarrak brillo eutsiz zuen nahiriari. Billabonatarren partetik.